



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

**Ekonomia Garapenaren,  
Berrikuntzaren eta Demografia  
Erronkaren Saila  
Departamento de Desarrollo  
Económico, Innovación y Reto  
Demográfico**

Ekonomia Garapenaren eta  
Berrikuntzaren  
Zuzendaritza Dirección de Desarrollo  
Económico e Innovación

## **AURRETIAZKO KONTSULTA, EKONOMIA GARAPENAREN ETA BERRIKUNTZAREN ZUZENDARITZAREN ESKUMENEN EREMUAN DIRULAGUNTZAK LEHIA ASKEKO ARAUBIDEAN EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ONESTEKO FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETU PROIEKTUARI BURUZ**

Bat etorri Xedapen Orokorrek egiteko Prozedura eta Araugintza Teknikari buruzko Jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkaritza handieneko erakundeei, honako gai hauen inguruan:

- a) ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan dirulaguntzak lehia askeko araubidean emateko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2019ko urriaren 11era arte, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.



<b>AURREKARIAK</b>	Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak. Diputatuen Kontseiluaren 6/2014 Foru Dekretua, otsailaren 18koa, aurreko foru dekretua aldatzen duena.
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Bat etorri ALHko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Aginduarekin, dirulaguntzak eman baino lehenago, emakida arautzen duten oinarriak onetsi beharko dira. Indarrean dauden oinarriak 2012koak dira (2014an aldatu ziren); hortaz, beharrezkoa da onestea beste batzuk, ordutik egoniko aldaketetara egokituko direnak.
<b>HURA ONESTEKO PREMIA ETA AUKERA</b>	2014tik (orain indarrean dauden oinarri arautzaileak aldatu ziren data), aldaketa garrantzitsuak egon dira: - Haiek bultzatu zituen Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza ez dago duela hainbat urtetatik. - Araugintza aldaketa garrantzitsuak egon dira, txertatu beharrekoak direnak oinarrien edukiari eragiten dioten aldetik; hona hemen arauak: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arau bera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorra, zeina zuzenean aplikatzen baita 2018tik... - Arau aldaketa horien barruan, 39/2015 Legeak administrazio publikoekin elektronikoki harremanak izateko eskubidea eta betebeharra arautzen du; horren ondorioz, aldaketak egon dira dirulaguntzak izapidetzean, eta hori haien



	oinarri arautzaileetan islatu behar da, eta aldaketa horiek ondorioak eragin ditzaten 2020ko deialdietan, oinarriak ekitaldi hori hasi baino lehen onetsi behar dira.
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Dirulaguntza arautetako aplikatu beharreko manuak betetzea</li><li>- Arau esparru eraginkor bat izatea, zuzendaritza honen eskumen diren dirulaguntzak kudeatzeko.</li></ul>
<b>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)</b>	Irizten zaio proposaturiko irtenbidea egokiena dela aurreikusitako xedeak erdiesteko.